# Adibideak

- Bolkanismo Kanaria uharteetan
- Paleoklima

Search History | Saved Searches

Combine queries

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ☐ | 5 | ( ( TITLE-ABS-KEY ( macaronesia* ) OR TITLE-ABS-KEY ( "canary islands" ) ) ) AND ( ... Show more | 1,919 results | Set Alert · More |
| ☐ | 4 | TITLE-ABS-KEY ( volcan* ) | 178,047 results | Set Alert · More |
| ☐ | 3 | ( TITLE-ABS-KEY ( macaronesia* ) OR TITLE-ABS-KEY ( "canary islands" ) ) | 13,420 results | Set Alert · More |
| ☐ | 2 | TITLE-ABS-KEY ( macaronesia* ) | 3,065 results | Set Alert · More |
| ☐ | 1 | TITLE-ABS-KEY ( macaronesia ) | 2,572 results | Set Alert · More |

Your history is available during this visit, but will be deleted after you leave Scopus. Click 'More' to 'Save' important searches.

egun batzuk beranduago, (sasi)sinonimian sakonduz:




("canary islands" OR canari* OR macaronesi*) AND (volcan* OR magma*)

Combine queries

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 9 | TITLE-ABS-KEY ( vertebrate* ) | 158,253 results | Set Alert | More |
| 8 | TITLE-ABS-KEY ( vertebra* ) | 413,015 results | Set Alert | More |
| 7 | TITLE-ABS-KEY ( animal* ) | 8,585,591 results | Set Alert | More |
| 6 | TITLE-ABS-KEY ( fossil* ) | 264,204 results | Set Alert | More |
| 5 | TITLE-ABS-KEY ( fossils ) | 256,376 results | Set Alert | More |
| 4 | TITLE-ABS-KEY ( animals ) | 8,558,087 results | Set Alert | More |
| 3 | TITLE-ABS-KEY ( paleoclima* OR paleoenvironment* OR palaeoenvironment* OR palaeoclima* ) | 79,104 results | Set Alert | More |
| 2 | TITLE-ABS-KEY ( paleoclima* OR paleoenvironment* ) | 69,339 results | Set Alert | More |
| 1 | TITLE-ABS-KEY ( paleoclima* ) | 40,533 results | Set Alert | More |

sinonimia / taxonomiaren maila egokia aztertu

Your history is available during this visit, but will be deleted after you leave Scopus. Click 'More' to 'Save' important searches.

<table>
<tr><th>Saioa atalez atal</th><th>Adibideak</th></tr>
<tr><td>

## Ongietorria:

Kontaktua> email edo **Euskarazko taldeetarako> bloga baliabide bibliografikoak**

Gaian sartu baino lehen:

**Emanaldiaren asmoak azaldu**:

- laguntza eskaintza, baina alde formaletara murrizten da, edukiak tutorearekin landu behar.
- Baliabide eta bilaketa prozesuaren errepasoa egingo dugu.

## 1 Aurrekari formalak: Sarbideak, RefWorks

Errepasoa hasi baino lehen elementu formal batzuen ezagupena zehaztu behar

### 1.1 Sarbideak

- **Sarbide orokorra EHU mailan >** sartu eta Nire Guneak zabaldu, biblioteka klikatu eta identifikazioa ikusi. Berriro irten

</td><td></td></tr>
</table>

| | |
|---|---|
| ● **Sartu katalogoan eta eman Saioa hasi >** bakoitzaren kontua katalogoan zabaltzeko. Pasahitza nola sortu azaldu eta funtzioak azaldu (kontua, erreserba, sare barruko biblioteken arteko mailegua):<br><br>**1.2 RefWorks >** Bibliotekako web orri nagusian esteka, zabaldu eta aukera garrantzitsuenak azaldu:<br>● Importatzea<br>● karpetak,<br>● Bibliografia<br>● Erremintak: Save to RefWorks, WriteNCite, GoogleDocs<br><br>ziurtatzeko…<br><br>**3 Baliabideak**<br><br>**3.1 Bibliotekako katalogoa.**<br>● Liburu eta artikulu elektronikoak. Izenburuan klikatuz fitxa propioa zabaldu, ea sarbide aukera desberdinak dauden.<br>● Datua baseetarako sarbideak beti katalogotik: katalogoan bilatuz > formatu iragazkia > webgunea | |

| | |
|---|---|
| • Bestela, web orri nagusian zerrenda alfabetikoa edo gaika, **(baina geologia ez dago!)**<br><br>**3.2 Dialnet plus** > katalogotik sartu, plus ataleko abantailak kontu propio egiten baduzu (bilaketa gordetzeko aukera adibidez)<br><br>**3.3 Scopus / (Web of Science)** > **harpidetza, katalogotik sartu behar.** Zabaldu ikusteko, gero Scopusen aritu<br><br>**3.4 Espezializatuak:** BIPGI, GeoRef; IGME: internetetik sarbide librea, zabaldu ikusteko bakarrik | |
| **Atsenaldi moduan:** ***lehenengo 3 emaitza orriak…eta kitto(¿?)*** PowerPointa da (pantaila osoan hobeto ikusteko, aurretik deskargatu > *Abrir con…* aukeratu > *Presentación con diapositivas* > *desde la primera diapositiva* jarri. Eginda dago bilaketa zuzena hasi baino lehen erritmoa apur bat aldatzeko, eta azaltzeko: nahiz eta bilaketa oso ondo egin, emaitza gehienak ez dutela balioko, eta ezinbesteko lana dela egokienak aukeratzea | |
| **4 Estrategia**<br><br>Abisua: hemendik aurrera azalpenak bi planoen artean mugituko dira etengabe: alde batetik bilaketa prozesuaren antolakuntza , eta bestaldetik hainbat baliabideen eskaintza aztertzea.<br><br>Ikusi ere blogean dagoen *Bibliografia nola bilatu* eskuorri optatiboaren atal honetan: *Baliabideak ezagutu* , eta baita ere *Bilaketa eskema orokorra* fitxategia | |

| | |
|---|---|
| | |
| **Bilaketaren lehenengo urratsa:** gaia aukeratu, sakontasun maila erabaki eta gako-hitzen bidez ahalik eta zehatzen definitu<br><br>Gaia aukeratzeko / sakontasun maila definitzeko begiratuko dugu **ADDI** eta **Recolecta,** eta Addi-n adibide bat aukeratuko dugu bilaketak egiteko. Erdarazko interfazetik bilatu. Publikoki agertzen diren lanak nota altuak lortu dutenak dira orohar.<br><br>**Katalogoa**: katalogo da gure lehenengo abiapuntua. Gaur egun dokumentu elektronikoak ere berehala eskainiko ditu, baina bereziki lagungarria da gaia testuinguruan kokatzeko dokumentuak topatzeko, monografíak, liburuak alegia.<br><br>Gainera, horrela ikusiko dugu datu-baseen ezaugarri nagusienetakoen bat, hau da, dokumentu baten fitxa osatzen denean egiten den deskribapena laburra hiztegi kontrolatu baten bidez, eta zein nolako abantaila duen horren erabilera, testu libreko gako-hitzekin konparatuta (hau da, guk kontzeptu bat azaltzeko erabiltzen dugun terminoekin). Deskribapen hau gaur egun gure katalogoan bakarrik dokumentu imprimatuekin egiten dugu, elektronikoen fitxak kanpoko eduki-hornitzaileen esku geratzen delako. Beraz, termino kontrolatu egokia dokumentu imprimatuen fitxetan bilatu eta topatuko dugu. | Sartu ADDIn adibideak topatzeko> Dozentzia > ZTF> bilatu *geología*<br><br>*Hartuko dugun adibidea>* ***Euskokantauriar Arroko hareen fase kristalino bereizgarriak***<br><br>Lanaren sarrera, hauek hartuko ditugu gure adibidezko bilaketarako gako hitzak ><br><br>● Euskokantauriar Arroa (cuenca vasco-cantábrica)<br>● Hareak (arenas)<br>● Kristal fasea edo fase kristalinoa ( fase cristalina)<br>● X izpien difrakzioa (XRD)<br><br>**Katalogoan:**<br><br>Gure adibideari heltzen badiogu ><br><br>Testu librean> *arenas* bilatzen badugu, formatu iragazkiaren bidez liburu imprimatuak aukeratzen badugu, 700 emaitzatik gora ditugu, baina lehenengo emaitza-orriak aztertuz ez dira egokiak. Gehiago zehazteko *geología* gehitzen badiogu, agertzen dira jada emaitza egokiak, baina 3 emaitza. Haien deskribapenetan ikusiko dugu termino kontrolatua singularra dela , *kw:arena,* alegia, eta horrek bai emango digu 60 emaitza, nahiz eta baten bat ere zarata izan. Gainera beste aukera batzuk ikusten ditugu hortik: *sedimentos, sedimentos marinos.* |

| | |
|---|---|
| Ikusi ere blogean : *lanaren aldeak, sinonimia arazoa, testu osoa* fitxategia<br><br>Hasierako zailtasun nagusia dugu bilatzeko terminoak ondo aukeratzen, lanaren alde desberdinak bereizten eta bilaketa galdera ahalik eta eraginkorra eraikitzen.<br><br>Horretarako, badugu ere hainbat tresna gure galdera datu-baseen funtzionamendura egokitzeko :<br><br>* , " ", AND / OR / (NOT)<br><br>Sinonimo gisa ulertu behar dugu ere idazkera-bertsioak : hitz elkartuak, sakabanatuak, gidoiez elkartuak, akronimoak…. | Bilaketa aurratuan tresna egokia dugu sinonimo biak batera bilatu ahal izateko testu librean *arenas OR sedimentos* bilatzen badugu, 998 emaitza agertzen zaizkigu, berriro zarata askorekin, baina bilaketa aurreratua erabiliz eta gai deskribapen atalean bilatuz, 294 agertuko dira, baina egokiak ia ia guztiak.<br><br>Arazo berbera topatuko dugu gaiaren alde bakoitzean, bigarren aldea, leku geografikoa, alegia:<br><br>**Katalogoan:**<br><br>cuenca vascocantabrica> 5 emaitza<br><br>cuenca vasco-cantabrica> 150 emaitza<br><br>Cuenca vascocantabrica OR vasco-cantabrica> 287 emaitza, baina:<br><br>**kontuz booleanoen erabilerarekin**, hasieratik amaiera doa sistema aplikatzen, eta kasu honetan ez du egiten guk nahi duguna, beste hori baizik: (cuenca AND vascocantabrica) OR vascocantabrica. Hobeto beti jarri parentesiak ORekin lotu nahi dugun multzoei.<br><br>cuenca (vascocantabrica OR vasco-cantabrica) > 151 emaitza<br><br>guk bilaketa aurreratuan ipintzen duguna (ikusi beheko lehenengo adibide pantaila kopia) horrela aplikatzen du : |

| | |
|---|---|
| **Bilaketa konplexuagoak eraikitzeko erosoago ibiliko gara bilaketa aurreratuaren eremuan.** Adibidez, ingelesezko emaitzetan ikusi ditugun terminoak ere kontuan hartzeko. Han aukeratu dezakegu fitxaren zein partetan bilatzen duen, (aukera gehiegi daude, geratu bi hauekin : ***Gako-hitza*** testu libreko terminoa bilatzen du bilaketa sinplean egiten duena, eta suposatzen da fitxa osoan, eta ***Gaia*** lehen ikusi dugun termino kontrolatuen artean bilatzen du zehatz mehatz. Orduan :<br><br>Hirugarren atala ere kontuan hartu nahi badugu gauza bera egin beharko dugu, hau da kontzeptua bilatzeko termino egokiak erabili eta sinonimoak kontuan hartu. | kw:(vascocantabri* OR vasco-cantabri* OR basque-cantabri*) AND kw:(cuenca OR basin) > 1025 emaitza<br><br>mota desberdinako bilaketak haien artean konbinatu diztakegu ere bai, horrela :<br><br>kw:(vascocantabri* OR vasco-cantabri* OR basque-cantabri*) AND kw:(cuenca OR basin) AND su:(arena OR sediment* OR Sand) : 63 emaitza<br><br>Adibidez : kristal fasea zer den Wikipedian bilatuz, sinonimo egoki posible bat topatzen dugu, polimorfismoa, eta ? erramintarekin hitzaren barruko hizkiak ordezkatzen dugu gaztelaniazko eta ingelesezko idazkera biak batera (polimorfismo eta polymorphism bilatzeko :<br><br>cr?stal* AND (fase OR phase OR pol?mor?ism*) > 636.669 emaitza<br><br>aurrekoarekin konbinatuz :<br><br>cr?stal* AND (fase OR phase OR pol?mor?ism*) AND kw:(vascocantabri* OR vasco-cantabri* OR basque-cantabri*) AND kw:(cuenca OR basin) AND su:(arena OR sediment* OR Sand) > **7 emaitza** |

| | |
|---|---|
| Hori bai, lanaren aldeak galderan sartu ahala, emaitza kopurua gero eta txikiagoa da, eta laugarrena sartzeko antza ez du merezi.<br><br>**Baina berriro kontuz** : **ez genuke alde guztiak batera bilatu behar,** adibidez egon daiteke guretzat oso interesgarria de aurrekari bat, itsas hareen analisia XRDen bidez egiten duena, baina munduko beste puntan eginda eta hango hareak aztertuz. Beraz, lanaren aldeen konbinaketa partzialak ere egin beharko ditugu.<br><br>Hau errazago ulertuko dugu aurrerantzean, bilaketa datu-base handi batean errepikatzeko orduan, Scopus-en han zuzen.<br><br>Beste arrazoi batengatik ere datu-baseetara joko dugu :<br><br>Aldizkari artikuluak, hau da normalean ikerketa puntualagoak, katalogoan ere agertzen dira, baina hauek bilatzeko bereziki eginda daude datu-baseak, bilaketak hobeto doitzeko tresneria dute eta. Maila desberdinetakoak daude, haien artean :<br><br>**Datu base orokorrak**, adibideak:<br><br>● Dialnet (Espainia mailan unibertsitateen ekoizpen zientifikoa, sarrera libre)<br>● Scopus (nazioartekoa, harpidetzazkoa ) | **Dialnet-en :**<br><br>(vascocantabri* OR vasco-cantabri* OR basque-cantabri*) AND (cuenca OR basin) AND (arena OR sediment* OR Sand) > 6 emaitza |

| | |
|---|---|
| Labur-labur Dialnet aipatuko dugu: zientzia gehienetarako hain justu desabantaila dena, Espainako eremura murriztuta egotea, Geologiarako interesgarria delako, nazioarteko datu baseetan agian agertzen ez diren aldizkariak eta gordailuak kontuan hartzen dituelako.<br><br>Kopiatu egingo dugu katalogoan eraikitako bilaketa, fitxen eremu zehaztekin lotura duten erreferentziak (kw : edo su :) hauek kenduz. Zentzu orokorrean, horrek esan nahi du ondo eraikitako bilaketa bat baliabide desberdinetan erabil dezakegula, baina egokitu egin beharko dugula bere funtzionamendu propiora.<br><br>Bide batez, gogoratu katalogotik sartzen bazara, Dialnet Plus-era goazela, non kontu propioa egiteko aukera dugun, bilaketa gorde ahal izateko. | |
| Scopus en sartu (katalogotik eta formatua webgunea iragazkia ipiniz, edo datu-baseen zerrendatik).<br><br>Scopusen bilaketa sistema aurreikusten du sinonomia suposatzen duen arazoa, eta bilaketa aurreratuen konfigurazio du berez. *Keywords* hiztegi kontrolatua ere erabiltzen ditu dokumentuen laburpen bateratua egiteko, eta hauek bi lekutan aztertu egin ahal ditugu: dokumentu bakoitzaren fitxan, katalogoan bezala, baina baita ere iragazkien artean. Keywords izeneko iragazkia, hain zuzen, egiten ari garen bilaketaren emaitzen termino kontrolatuak zerrendatzen ditu, emaitzen artean agertzen direnaren maiztasunaren arabera. Iragazki bezala ez | **Scopus**<br><br>Lehenengo aldea :<br><br>Basque cantabri* > 423 emaitza,<br><br>Keywords iragazkian topatzen dugun alternatibak :<br><br>● Basque-Cantabrian Basin<br>● Basque Cantabrian Basin (gidoi barik)<br>● Bay of Biscay |

| | |
|---|---|
| ezik, bilaketa terminoak aukeratzeko unean lagungarria da aztertzeko ea han agertzen den lanaren alde bateko bilaketarako oraindik kontuan hartu ez dugun sinonimoren bat.<br>Datu basearen kudeaketa ingelesez egiten denez, hau da erabiliko dugun hizkuntza bilaketa egiteko. Gaztelaniazko termino baten itzulpen egokia egiteko, gaztelaniaz bilatu ahal dugu eta emaitzen fitxetan agertzen diren ingelesezko terminoak erabili bilaketa ingelesez jartzeko.<br>Katalogotik egindako berriro erabiliko dugu, baina alde bakoitza bilaketa propio baten zehatztuz. | ● Cantabrian Basin<br><br>Lau aukera hauek, gakotxoen artean bakoitza, konbinatzen badugu hau egiten du sistema :<br><br>( TITLE-ABS-KEY ( "Basque-Cantabrian Basin" ) OR TITLE-ABS-KEY ( "Basque Cantabrian Basin" ) OR TITLE-ABS-KEY ( "Bay of Biscay" ) OR TITLE-ABS-KEY ( "Cantabrian Basin" ) ) > 2812 emaitza<br><br>Bigarren aldea<br><br>Sand* OR Sediment* (berez plurala eta singularra automatikoki kontuan hartzen ditu, baina horrela ere *sedimentology* adibidez sartuko da gure bilaketan. Ez dugu topatzen Keywordsen artean beste sinonimorik, baina nahiko eta soberan horrela:<br><br>( TITLE-ABS-KEY ( sand* ) OR TITLE-ABS-KEY ( sediment* ) ) 1.032.682 emaitza<br><br>Agian merezi zaigu zuzenean iragazki bat jartzea bilaketa horri, baina aldeen arteko konbinaketa funtzio hori beteko duela espero dugu.<br><br>Hirugarren aldea :<br><br>Crystal fase > 8 emaitza<br><br>Kontuz, false friend !<br><br>Crystal phase > 310.901 emaitza<br><br>Keywordsen artean ez nuke jakingo zeintzuk dira aukerarik egokienak, kasu honetan bakarrik aldatuko dut Crystal*, crystallization ere emaitzen artean sartzeko |

TITLE-ABS-KEY ( crystal* AND phase ) > 475.230 emaitza

Laugarren aldea :

XRD > 356.719 emaitza

Kontuz, akronimoa bakarrik erabiltzea galerak ekartzen ditu eta. Keywordsen agertzen diren testu osoko idazkera aukerak kontuan hartu (zuek jakin ea han agertzen diren termino teknikoen artean baten bat zehatzago deskribatzen du erabiliko den laborategi-teknika hau) :

( TITLE-ABS-KEY ( xrd ) OR TITLE-ABS-KEY ( x-ray AND diffraction ) OR TITLE-ABS-KEY ( x AND ray AND diffraction )) > 920.728 emaitza

Aldea dago ere, gakotxoak erabiliz edo ez, baina kasu honetan agian beste hitz bat tartekatzen duten termino egokiak galtzen ditugu :

( TITLE-ABS-KEY ( xrd ) OR TITLE-ABS-KEY ( "X-ray diffraction" ) OR TITLE-ABS-KEY ( "X ray diffraction" ) ) > 859.230 emaitza

Alde bakoitzarako badaukagu bilaketa optimizatu bat (2,3,6, eta 8 bat aukeratzearren).
Beraz, horrela konbina ditzekegu:

<table>
<tr>
<td>
Tarteko bilaketa hauek zehaztu eta gero (ikusi behean bilaketa adibide 2 pantaila), orain haien arteko konbinaketei ekingo diegu

●

Laburbilduz, hau da gure bilaketa galdera eraikitzeko prozesua:

● Sinonimoak<br>
● Bilaketa partzialak<br>
● Konbinaketa historialaren bidez
</td>
<td>
#2 AND #3 AND #6 AND #8 hau da:

( ( TITLE-ABS-KEY ( "Basque-Cantabrian Basin" ) OR TITLE-ABS-KEY ( "Basque Cantabrian Basin" ) OR TITLE-ABS-KEY ( "bay off biscay" ) OR TITLE-ABS-KEY ( "Cantabrian Basin" ) ) ) AND ( ( TITLE-ABS-KEY ( sand* ) OR TITLE-ABS-KEY ( sediment* ) ) ) AND ( TITLE-ABS-KEY ( crystal* AND phase ) ) AND ( ( TITLE-ABS-KEY ( xrd ) OR TITLE-ABS-KEY ( x-ray AND diffraction ) OR TITLE-ABS-KEY ( x AND ray AND diffraction ) ) )

**>1 emaitza:**

**Evolution of clays in Cretaceous Marly series (Álava block, Basque Cantabrian Basin, Spain): Diagenesis and detrital input control**

Kasu honetan, alderanztizko bilaketari ekinko nioke, bere bibliografia aztertuz, eta related dokuments erraminta erabiliz.

Kokapen geografiko zehatza kanpoan uzten badugu, ordea**:**

#3 AND #6 AND #8 hau da

( ( TITLE-ABS-KEY ( *sand** ) OR TITLE-ABS-KEY ( *sediment** ) ) ) AND ( TITLE-ABS-KEY ( *crystal** AND *phase* ) ) AND ( ( TITLE-ABS-KEY ( *xrd* ) OR TITLE-ABS-KEY ( *x-ray* AND *diffraction* ) OR TITLE-ABS-KEY ( *x* AND *ray* AND *diffraction* ) ) )
</td>
</tr>
</table>

| | |
|---|---|
| Lehenengo emaitza egokiak biderkatzeko aukerak:<br><br>● Cited by (scopus)<br>● related documents (scopus)<br><br>Doitzeko beste aukerak:<br><br>● Iragazkiak edukiaren aldetik > keywords<br>● Dokumentu mota review<br>● Iragazki formalak > data, hizkuntza | **> 1.110 emaitza**<br><br>Orain edukizko iragazkiak erabiliko nuke, hau da Keywords eta dokumentu motarena.<br><br>Behin emaitza 150 behera hobeena izenburuak eta behar bada laburpenak ikuskatzea, aukeraketa zuzena egiteko. |

| | |
|---|---|
| Eta kontuan har ditzakegu ere bestelako aukerak:<br>• WebOfScience<br>• aldizkari espezializatuak (Science Direct, zerrenda AZ)<br>• datu base espezializatuak. | |
| **5 Kudeaketa**<br>Gero testu osoa lortu behar><br>• datu-basean bertan<br>• google erabiliz<br>• katalogo plus-en<br>• katalogoan, aldizkaria bilatuz<br>• eskatu tutoreari edo liburuzainei<br><br>Kudeaketa, zitak> Refworks<br>Plagio. | |

Bilaketa adibidea 1



Bilaketa adibide 2

